

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

15/2018 Foru Araua, irailaren 26koa, irailaren 11ko Foru Gobernu Kontseiluaren 2/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko, Arabako zerga araudiari egokitzeko balio erantsiaren gaineko zergan, zerga berezietan, berotegi efektuko gas fluortuen gaineko zergan eta berandutze interesean egindako zenbait aldaketa

Arabako Batzar Nagusiek, 2018ko irailaren 26an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

15/2018 Foru Araua, irailaren 26koa, irailaren 11ko Foru Gobernu Kontseiluaren 2/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko, Arabako zerga araudiari egokitzeko balio erantsiaren gaineko zergan, zerga berezietan, berotegi efektuko gas fluortuen gaineko zergan eta berandutze interesean egindako zenbait aldaketa.

HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritz, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, irailaren 11ko 2/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, Arabako zerga araudiari egokitzeko balio erantsiaren gaineko zergan, zerga berezietan, berotegi efektuko gas fluortuen gaineko zergan eta berandutze interesean egindako zenbait aldaketak.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

ARTIKULU BAKARRA. Baliozkotuta geratu da 2/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, irailaren 11koa, Arabako zerga araudiari egokitzeko balio erantsiaren gaineko zergan, zerga berezietan, berotegi efektuko gas fluortuen gaineko zergan eta berandutze interesean egindako zenbait aldaketak.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 26a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA